

740/2024 EBAZPENA, URRIAREN 7KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ BETE GABE UZTEN DEN IRAILAREN 5EKO 614/2024 EBAZPENAREN DEIALDIA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN EKONOMIAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA-EKONOMIAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA KATEGORIAKO BOST LANPOSTU ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO.

AURREKARIAK

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 5eko 614/2024 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Ekonomiako Arlo Korporatiboko Teknikari Arduraduna-Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako bost lanpostu aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen betetzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian. Ebazpen hori 2024ko irailaren 17an argitaratu zen web-orrian.

EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Ekonomiako Arlo Korporatiboko Teknikari Arduraduna-Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako bost lanpostu aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia, ez dagoelako izangairik egiaztatzen duenik batetik baduela Lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan jasotako titulu akademikoa, eta bestetik, zerbitzu aktiboan dagoela jabetzan duen lanpostuan.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 7a


Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA,

JOSUNE RETEGI ORMAZABAL